

Gernuarekin erreakzionatzen duen pixoihala.

Goizane Sáenz de la Fuente, Irati Castro, Marta Codesido, Garazi Sainz eta Jon Xabier Basogain.

DIRU ITURRIAK.

Aurreikusten dugu jendeak pixoihal normalengatik baino apur bat gehiago ordaintzeko prest egongo dela, gure pixoihalak ematen duen zerbitzua oso handia baita. Bi bezero mota izango ditugula ere aurreikusi dugu: dendan (dela on-line denda, dela fisikoan) erosten duena eta zahar-etxeak eta ospitaleak (zeinak eskaera erregularrak eta handiak egingo dizkiguten).

Badakigu, era berean, prezioak oso altuak ezin daitezkeela izan; oso altuak badira, jendeak zerbitzu hau eskaintzen ez duten pixoihalak erosten jarraituko duelako.



Honako estimazio hauek egin ditugu hainbat pertsonari galdetuz:

0.21€-ko prezioa duen pixoihal arruntaren prezioan oinarriturik batz bestea 0.9€ gehiago ordainduko luke pertsona batek gure pixoihala erosteagatik. Hau da:

Pixoihal arruntaren prezioa: 0.21€

Gurearen prezioa (jendearen iritzian oinarritutakoa): 1.11€

0.5€-ko prezioa duen pixoihal arruntaren prezioan oinarriturik batz bestea 0.55€ gehiago ordainduko luke pertsona batek gure pixoihala erosteagatik. Hau da:

Pixoihal arruntaren prezioa: 0.5€

Gurearen prezioa (jendearen iritzian oinarritutakoa): 1.05€

Hala ere, aurretik aipatu dugu bi bezero mota espero ditugula: pertsona arruntak (dendetan erosiko dutenak) eta eskaerak egiten dizkiguten zahar-etxeak eta ospitaleak; azkeneko hauek eragingo dizkiguten diru-sarrerak (ospitale eta zahar-etxeenak) erregularrak izango dira eta nolabaiteko berme ekonomikoa emango digute, hauekin dugun kontratuak irauten duen bitartean behinik-behin. Adierazi nahi dugu, era berean, ospitale eta zahar-etxeen kasuan prezioak merkeagoak izatea partikularren prezioekin alderatuta.

Publizitatea ere egingo dugu eta horren bidez diru sarrerak lortzea espero dugu.

Aktiboen salmenta izango da enpresaren diru-sarrera, hain zuzen ere, komunikatzeko beharra eta pixoihala eraman behar dutenentzat gertuarekin erreakzionatzen duen pixoihala da gure aktiboa. Gainera, ordainketa bakarreko diru-sarrerak dira.

Proiektua abiarazteko dirua guk geuk ipiniko genuke edota bankuari maileguan eskatu. Hala ere, gurekin lanean ibiliko diren enpresek irabazien ehuneko baten trukean dirua jartzea ere eskatuko genieke. Ehunekoak (bakoitzaren aportazioak zein enpresei emango zaizkienak) ezin ditugu eman; izan ere, oso zaila da zenbatekoa izango den hasierako inbertsioa, salmenta prezioa, eta, hortaz irabaziak.